

PINUDI APARKALEKUAN GARAJE-PLAZAK ESLEITZEKO DEIALDIA.

I. SARRERA

Irungo Udalak, IRUNGO ETXEBIZITZARAKO ELKARTE PUBLIKOA / SOCIEDAD PÚBLICA DE VIVIENDA DE IRUN, S.A.U. IRUNVIren bitartez, garaje-plazen eskatzaileen erregistroa sortu du gunen horretan bizi diren hiritarren eskariak jasotzeko eta “Irungo Udalaren/IRUNVIren Pinudi Aparkalekuko Garaje-plazak Eskatzen dituztenen Erregistroaren Funtzionamendurako Oinarriak”(2005/12/20an onartu eta 2006/12/29an aldatu zituen IRUNVIko Administrazio Kontseiluak) betetzen dituztenek garaje-plaza baten esleipenduna izateko aukera izan dezaten Erregistro hori 2007ko urtarrilaren 8tik 2007ko otsailaren 23 arte ireki da, eta bertan izena ematea da lehenengo urratsa aipatutako plazetarako aukera izateko.

Bestalde, 2006ko uztailaren 26ko Irungo Udalak osoko bilkuran hartutako erabakiaren bidez onartu zuen Pinudi Parkea Eremuko Barne Erreformatarako Plan Bereziaren L.K. partzelaren lur azpia Irunviri esleitzea, administrazio emakida prozeduraren bidez, eta 2006ko irailaren 26an formalizatu zen horri dagokion kontratua. Kontratuak dioenaren arabera, gehienez 75 utekoa izango da emakidaren iraupena, kontratua sinatzen denetik kontatuta.

Hemen azaldutakoari jarraiki, Deialdi hau onetsi zuen 2007ko martxoaren 1ean bildu zen IRUNVIko Administrazio Kontseiluak.

II. ESLEIPEN-PROZEDURA

1. Artikulua.- Esleipenaren xedeko plazak.

273 plaza ireki esleituko dira. ANTERO – FERNÁNDEZ ARQUITECTOS SL enpresak egindako Irungo Pinudi Parkeko Lur Azpiko Aparkelekua eraikitzekeko proiektuko plazak dira horiek, eta plaza horietatik 7 erreserbatuta daude mugikortasun gutxitu iraunkorreko minusbaliatuentzat.

2.-Artikulua.- Lagapen erregimena.

Pinudiko garaje-plazen erabileraren lagapena egingo du Irunvik, 2006ko uztailaren 26an Irungo Udaletik jasotako 75 urteko administrazio emakida prozeduraren bidez.

3.- Artikulua.- *Garaje-plazen prezioa.*

Garaje plaza bakoitzaren prezioa kokapenaren arabera izango da.

- 1. solairua: 21.100 euro plaza bakoitzeko (gehi BEZ)
- 2. solairua: 18.600 euro plaza bakoitzeko (gehi BEZ)
- 3. solairua: 16.600 euro plaza bakoitzeko (gehi BEZ)

4.- Artikulua.- *Eskatzaileen kupoak, esleipenaren xedeko guneak eta lehentasun-taldeak*

KUPOAK

Eskatzaileen kupo hauek kontuan hartuz egingo da garaje-plazen esleipena:

MINUSBALIATUEN KUPOA: Mugikortasun gutxitu iraunkorra duten pertsona minusbaliatuek osatzen dute kupo hau, Irisgarritasuna Sustatzeko 20/1997ko abenduaren 4ko Legearen 9. artikulua ezartzen duen proportzioan.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburuak emandako 2002ko abenduaren 30eko aginduan etxebizitzaren behararen ingurukoa (2003ko abenduaren 16ko Aginduak aldatua) agertzen diren baldintzak betetzen dituztenak hartuko dira mugikortasun gutxitu iraunkorra duten pertsona minusbaliotutzat.

Erreserba hau osatzen dutenak, baremo hauen arabera sailkatuko dira:

1. Gorpil-aulkian daudenak (A).

2.-Derrigorrez, bi makulu behar dituztenak ibiltzeko. (B).

3.-7 puntu edo gehiago batzen dituztenak ondokoa kontuan hartuz: minusbaliotasun maila aitortu, adierazi eta sailkatzen den prozedura arautzen duen abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuko 3. Eranskineko d) ataletik h) ra .

Aldi berean baremo batean baino gehiagotan parte har dezaketenen kasuan, aipatutako ordenaren arabera sartuko dira.

Kupo honetan sartzeko betekizuna batetzen dituzten eskariak ezingo dira beste kupoetan sartu.

KUPO OROKORRA: Aurreko kupoan sartzen ez diren gainerako eskatzaileak.

ESLEIPENAREN XEDEKO GUNEA

- A gunea: Pinudi eta Bera Bidasoa kaleetako zenbaki guztiak.
Pinudi kaleko atzealdeko lokalak (Hondarribia kalea, zk. g.).
Antzaran plaza, 1etik 16ra
Antzaran eta Lesaka kaleak
- B gunea: Lekaenea kalea, 14tik 30era.
Lucas de Berroa kalea, 2tik 14ra (biak barne)
Hondarribi kalea, 15etik 43ra (biak barne).

LEHENTASUN-TALDEAK

Esleipena **lehentasun-taldean** arabera egingo da bai kupo orokorrerako bai mugikortasun gutxitu iraunkorra duten mainusbaliotuen kuporako.

I. TALDEA:

A GUNEko bizilagun gisako eskaerak:

- Eskaeran eskatutako lehenengo plaza, baldin eta ibilgailuaren titularrak beste garaje-tokirik ez badauka, jabetzan edo lagapen-erregimenean, esleipenaren xedeko guneetan.

II. TALDEA:

A GUNEko merkatari edo profesional gisako eskaerak:

- Eskaeran eskatutako lehenengo plaza, baldin eta ibilgailuaren titularrak beste garaje-tokirik ez badauka, jabetzan edo lagapen-erregimenean, esleipenaren xedeko guneetan.

III. TALDEA:

A GUNEko bizilagun gisako eskaerak:

- Eskaeran eskatutako bigarren plaza, baldin eta ibilgailuaren titularrak beste garaje-plazarik ez badauka, jabetzan edo lagapen-erregimenean, esleipenaren xedeko guneetan.
- Eskaeran eskatutako lehenengo plaza, baldin eta ibilgailuaren titularrak beste garaje-plazarik baldin badauka, jabetzan edo lagapen-erregimenean, esleipenaren xedeko guneetan.

IV. TALDEA:

A GUNEko merkatari edo profesional gisako eskaerak:

- Eskaeran eskatutako bigarren plaza, baldin eta ibilgailuaren titularrak beste garaje-plazarik ez badauka, jabetzan edo lagapen-erregimenean, esleipenaren xedeko guneetan.
- Eskaeran eskatutako lehenengo plaza, baldin eta ibilgailuaren titularrak beste garaje-plazarik baldin badauka, jabetzan edo lagapen-erregimenean, esleipenaren xedeko guneetan.

V. TALDEA:

B GUNEko bizilagun gisako eskaerak:

- Eskaeran eskatutako lehenengo plaza, baldin eta ibilgailuaren titularrak beste garaje-plazarik ez badauka, jabetzan edo lagapen-erregimenean, esleipenaren xedeko guneetan.

VI. TALDEA:

B GUNEko merkatari edo profesional gisako eskaerak:

- Eskaeran eskatutako lehenengo plaza, baldin eta ibilgailuaren titularrak beste garaje-plazarik ez badauka, jabetzan edo lagapen-erregimenean, esleipenaren xedeko guneetan.

VII. TALDEA:

B GUNEko bizilagun gisako eskaerak:

- Eskaeran eskatutako bigarren plaza, baldin eta ibilgailuaren titularrak beste garaje-plazarik ez badauka, jabetzan edo lagapen-erregimenean, esleipenaren xedeko guneetan.
- Eskaeran eskatutako lehenengo plaza, baldin eta ibilgailuaren titularrak beste garaje-plazarik baldin badauka, jabetzan edo lagapen-erregimenean, esleipenaren xedeko guneetan.

VII. TALDEA:

B GUNEko merkatari edo profesional gisako eskaerak:

- Eskaeran eskatutako bigarren plaza, baldin eta ibilgailuaren titularrak beste garaje-plazarik ez badauka, jabetzan edo lagapen-erregimenean, esleipenaren xedeko guneean.
- Eskaeran eskatutako lehenengo plaza, baldin eta ibilgailuaren titularrak beste garaje-plazarik baldin badauka, jabetzan edo lagapen-erregimenean, esleipenaren xedeko guneean.

IX. TALDEA:

Aurreko inongo taldetan ez dauden gainerako eskatzaileentzako garaje-tokia.

III. ESLEIPENDUNAK AUKERATZEKO ZOZKETA

5. Artikulua.- *Non eta noiz egingo den zozketa.*

Plazak esleitzeko zozketa 2007ko martxoaren 30eko 11:00etan egingo da Kontserbatorioaren eta Udalaren Musika Eskolaren Auditoriumean (Mendibil parkea- Villa M. Luisa). Notario aurreko ekitaldi publikoan eta bola zenbakituak ateraz egingo da zozketa.

6. Artikulua.- *Zozketan parte hartzeko zerrenda.*

2007ko martxoaren 1an Onartuen eta baztertuen behin behineko zerrendak onetsi ditu Administrazio Kontseiluak. Zerrendak IRUNVIren bulegoetan eta Irungo Udalaren IRUNVIren Web orrietan erakutsiko dira, eta haien argitarapena Gipuzkoako egunkaririk hedatuenean iragarriko da.

Zerrenda horien onespeneraren aurkako erreklamazioa jar daiteke IRUNVIren Administrazio Batzordearen aurrean iragarpena Gipuzkoako egunkaririk hedatuenean egin eta hurrengo egunetik hasi eta 15 egun naturaleko epean.

Aurkeztutako errekurtsioak ebatzi ondoren, IRUNVIren Administrazio Batzordeak zozketa egiteko zerrendak onartuko ditu; era berean, zozketarako horretarako zenbakiak ezarriko ditu eta taldeka banatuak. Zerrendak ikusgai jarriko dira IRUNVIren bulegoetan, zozketaren lekuan eta egunean eta Irungo

Udalaren eta IRUNVIren Web orrietan, eta Gipuzkoako egunkaririk hedatuenean iragarriko da haien argitarapena.

7. Artikulua.- Zerbakiaren esleipena zozketarako

Zozketa egin ahal izatekoausaz esleitu dira zerbakiak, kupotan eta taldetan banatuta.

MINUSBALIATUEN KUPOA

Eskaera bakarra dagoenez, ez zaio zerbakirik esleituko, eta talde honetarako erreserbatu diren 7 plazen artean aukeratu ahal izango du.

KUPO OROKORRA.

- I. TALDEA: 1.etik 36.era (36 eskari).
- II. TALDEA: 40.etik 41.ra (2 eskari).
- III. TALDEA: 50.etik 58.era (9 eskari).
- IV. TALDEA: 0
- V. TALDEA: 60.etik 65.era (6 eskari).
- VI. TALDEA: 0
- VII. TALDEA: 0
- VIII. TALDEA: 0
- IX. TALDEA: 0

8.Artikulua- Zozketaren prozesua

ZERRENDA bat lortuko da zozketaren bidez, eta zerrenda horren arabera ordenatuko da GARAJE-PLAZAREN AUKERAKETA.

Aukeraketa faseka egingo da, eta FASE horien kopurua eskaria aurkeztu duten TALDEena izango da, betiere deialdi honen 4. artikuluan ezarritako lehentasunaren arabera eta zehazten den modu honetan:

- I FASEA: I. TALDEAREN eskariak ordenatuko dira, eta horretarako atera egingo dira talde horri dagozkion zerbaki guztiak.

Ateratzearen ordenak zehaztuko du ZERRENDAREN ordena.

- Hori egindakoan, gainerako faseak gauzatuko dira, II: FASEA, III. FASEA... eta abar. Era berean ordenatuko dira II. TALDEaren, III. TALDEaren... eta gainerakoen eskariak, I. FASEan egin den bezala, eta orden horretan gehitu egingo dira GARAJE-PLAZA

AUKERATZEKO ZERRENDA horretan.

9. Artikulua. – *Esleipendunen zerrendak*

Zozketa egindakoan, hautatuen behin-behineko zerrendak egingo dira.

IRUNVIko Administrazio-batzordeak onetsi beharko ditu hautatuen behin-behineko zerrendak, eta zerrenda horiek ikusgai jarriko dira IRUNVIko bulegoetan eta Irungo Udalaren eta IRUNVIren web orrietan, eta erreklamazioa aurkeztu ahal izango da Administrazio Batzorde horren aurrean, hilabeteko epean.

Hautatutako pertsona izateak berez bermatzen ez duenez pertsona horiek deialdiko baldintza eta eskakizun guztiak betetzen dituztenik, jakinarazpena bidaliko zaie 10 egun naturaleko epean baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko dokumentazioa aurkez dezaten.

Dokumentazio aztertu eta behar adina egiaztapen egin ondoren IRUNVIren Administrazio Batzordeak hautatuen eta itxaronzerrendakoen behin betiko zerrendak onartuko ditu. Zerrenda horiek IRUNVIren bulegoetan eta Irungo Udalaren IRUNVIren Web orrietan erakutsiko dira, eta haien argitarapena Gipuzkoako egunkaririk hedatuenean iragarriko da.

10.- Artikulua.- *Garaje-plazen aukeraketa.*

Irunvik garaje-plaza aukeratzeko (eskuragarri daudenen artean) eskatuko die hautatutako pertsoneri, betiere zozketaren ZERRENDAREN ordenaren arabera.

IV. BESTE BALDINTZA BATZUK

11. Artikulua.- *Betekizun espezifikoak.*

Garaje-plazaren eskatzaileek IRUNVIren Datu Basean egon behar dute izena emanda, eta Irungo Udala/IRUNVIren Pinudi Aparkalekuko Garaje-plazen Eskatzaileen Erregistroaren Funtzionamendu Oinarrietan ezartzen diren baldintza guztiak bete behar dituzte.

V. ARAUDIA

12. Artikulua.- Aplikatu beharreko Araudia.

Deialdi honek arautzen ez duen orotan, Irungo Udala/IRUNVIren Pinudi Aparkalekuko Garaje-plazen Eskatzaileen Erregistroaren Funtzionamendu Oinarriek ezarritako legedia aplikatuko da.

Halaxe izango dira aplikatzekoak administrazio-eskubideko arauak eta, hala dagokionean, eskubide pribatukoak.

Irun, 2007ko martxoak 1

IRUNGO ETXEBIZITZARAKO ELKARTE PUBLIKOA/SOCIEDAD
PÚBLICA DE VIVIENDA DE IRUN, SAUko Administrazio Batzordeko
Presidentea,

José Antonio SANTANO CLAVERO.